

Hondarribian, 1981.eko Abenduaren 29an, arratsaldeko lau t'erdietan egin du Euskaltzaindiak urte amaierako batzarra. Udaletxeko aretoan bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buruorde, P. Altuna, J. L. Davant, A. Irigoyen, E. Knörr, F. Krutwig, P. Lafitte, L. Mitxelena, F. Ondarra, J. San Martin eta J. M.^a Satrustegi euskaltzain osoak. N. Altzola, J. A. Arana, J. M.^a Aranalde, M. Atxaga, J. G. Etxebarria, J. M.^a Etxaburu, P. Goenaga, J. Goikoetxea Maiza, X. Kintana, J. L. Lizundia, J. A. Loidi, J. A. Mujika eta J. J. Zearreta euskaltzain urgazleak. E. Larre eta X. Diharce jaunek aurreko bilkuretan egon arren, honetan gelditzerik ez dute izan.

H. Hiriart-Urruty, A. Irigaray eta P. Larzabal jaunek bere ezin etorria adierazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Fernando Artola "Bordari", Hondarribiko euskaltzain urgazlea ebakuntza baten ondorez gaixo dagoela adierazi du euskaltzainburuak, osasuna opatuz.

Eskuarteko gorabeheren artean, Eusko Jaurlaritzako Kultur Kontseilartzak egingo dituen liburu erakusketen berri jaso da. Euskaltzaindiari bere liburuen zabalkunderako stand bat doan eskaini zaio. Gogo onez hartzen da eskaintza eta eskertzen.

Euskaltzainen bilkurak

Atzo egun osoan eta gaur goizetik lanean dihardun dute euskaltzainek, bi gai soilik aztergai harturik: euskal hiztegiak eta irakasle gaitasun agiria.

Hiztegiak

Atzo, Abenduak 28, L. Villasante euskaltzainburuaren aurkezpen txostenarekin hasi zen bilkura, goizeko hamaika t'erdietan. Prozeduraz mintzatu zen J. L. Lizundia eta Urriko batzarrean gai honetaz esandakoen laburpena egin zuen J. M.^a Satrustegi idazkariak. A. Irigoyen jaunak txosten bat ekarri zuen hiztegiei buruz bere ikuspegia agertzeko. Hiztegiintzak lehenetasun bat

duela Euskaltzaindiaren eginkizunetan, esan zuen, eta gaizki sortutako hitzei dagokienez salaketa egin behar lukeela.

Hamabi t'erdietan hasi zen bigarren saioa. Hiztegegintzan ari diren zenbait jaunekin harremanak ukan dira. Etorri ziren: Jesus M.^a Goñi "Elhuyar"-koa, Joseba Intxuasti, UZEIkoa, Xabier Kintana, L. M.^a Mujika eta Ibon Sarasola. P. Mujikaren hutsunea azpimarratu zen. Bakoitzaren agerpenak jaso ondoren elkarrizketa sortu zen ikuspegi ezberdinak bateratzeko. Erabaki gabe dauden puntu zenbait argitu beharra ere ikusi da. Baikor gertatu zen bilera.

Arratsaldean, euskaltzain osoak bakarrik bildu ziren eta honako ondore hauetara heldu: a) Hiztegi orokorra eta hiritartua, edo gaurkotua, Euskaltzaindiaren eginkizunetan sartzen dira. b) Espezialdua sortzea, ordea, ez da zuzenean bere egitekoa. c) Ezin hobeki deritza Euskaltzaindiak edonork taldeka nahiz bakarka arlo honetan lan egiteari, eta d) Hiztegegintzarako batzorde bat sortu beharra ikusi da. Eta lehenbailehen sortu ere.

Euskararen gaitasun agiriak

Gaur goizean, Abenduak 29, bigarren gaia aztertu da. Euskaltzaindiak hutsune handia bete du irakasle tituluekin zenbait urtez. Egoera honetan, hala ere, bada horretarako beste biderik Euskal Herriko Komunitate Autonomoaren eremuan eta bai Iparraldean. Nafarroa gelditzen da, gaurkoz, txintxillika.

Euskal Herriko Komunitate Autonomoaren eremuan bere esku uzten da, beraz, eginkizun hau, etendura eta urradurarik gabe alde batetik, eta orain arteko maila minimoak zainduz aurrera eraman dezan eskatuz. Bordeleko Unibertsitateak Baionan sortu berri duen eskola kontuan izanik, Iparraldeko Euskaltzainen gain gelditzen da komeni den erabakia hartzea. Nafarroan orain arte bezala egingo dira azterketak.

Gai hauei buruz egindako adierazpen bi irakurri ditu gero idazkariak. Adierazpenok aurreragoko orrialdeetan aurkituko dituzu.

Txostenak

J. A. Mujikak "(e)la eta beste konpletibatzaileak" gaitzat harturik irakurri du bere txosten mardula. Idazle zaharren lanetan oinarriturik eman dituen argibideak arretaz jarraitu dituzte entzuleek. Gramatika batzordeak aurrera darama eskatu zaion azterketa lana.

J. L. Lizundiak datorren urteko batzar egutegia irakurri du, lau euskal idazle edo euskalarien mendeurrenak ditugula azpimarratuz: Lopez ostibarta-

rrarena, Vicenta Antonia Mogel azkoitiarrarena, Aramaioko Pedro Ignacio Barrutia, eta Oiartzungo Sebastián Mendibururena. 1882an Bilbon ospatutako "Fiestas Euskaras" ere aipatu ditu. Gertakizun horien inguruan ibiliko dira, beraz, datorren urteko batzar bereziak.

P. Lafitte jaunak idatzitako txosten laburra irakurri du gero euskaltzainburuordeak. Egiategik ematen dituen berriak kontuan harturik, hainbat argitalpen izan dituen "Exerzizio izpirituala" Pedro Argain batek egin zuela adierazi du.

Eta besterik gabe amaitu da batzarra.

Euskaltzainburua
Fr. LUIS VILLASANTE

Idazkaria
JOSE M.^a SATRUSTEGI